CURI KONTUEN EDO ANTZEKOEN AURREAN ZER EGIN: GOMENDIOAK

Dokumentu honek zenbait neurri ematen ditu, baloratu ahal izateko zer esku-hartze mota egin behar den *curi* kontuekin alegia, eskolako meme-kontuekin edo antzekoekin egindako erabilera desegokien edo delitu-erabileren aurrean, horiek ikastetxeekin edo hezkuntza-komunitatearekin lotuta daudenean.

Egoera ikertu eta jakinaraztea

Hezkuntza-komunitateko edozein kidek uste badu *curi* kontu batekin erabilera desegoki bat edo delitu-erabilera bat egin dela, ikastetxeko zuzendaritza-taldeari jakinarazi beharko dio.

Zuzendaritza-taldeak egoeraren berri jasotzen duenean, urrats hauek eginen dira:

1. Frogak biltzea: pantaila-argazkiak, estekak, erabiltzaileak eta aurkitutako material mota guztiak gorde egin beharko dira.
2. Egoera baloratzeko beharrezkotzat jotzen den informazio osagarri guztia biltzea.

Edukiak hezkuntza-komunitateko pertsona baten duintasuna, ohorea, intimitatea edo irudi-eskubidea urratzen duela uste bada, hauxe egin beharko da:

1) Kaltetuei eta adingabeak badira haien familiei informazioa eman, eta pertsona horiek arreta handiz babestu.
2) Kasua ikertu beharko da gertatu denaren egilea edo egileak nortzuk diren argitzeko, eta, hala badagokio, aplikatuko da 47/2020 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa. Hartu beharreko neurrietan, erreparazioari eta gertatutakotik ikasteari emanen zaie lehentasuna, eta edukia zabaltzen lagundu dutenei ere aplikatuko zaizkie neurriak.
3) Nolanahi ere, egoera bereziki larria bada edo biktimak hala irizten badio, honako jardun hauek egiten ahalko dira:
    a) Edukia salatu, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren bidea erabilita
    b) Profila sare sozialean bertan salatu, eta edukiak kentzeko eskatu TIK-TOK, Instagram, Snapchat eta abarri.

c) Ustezko delitu-egitateak salatu Foruzaingoko delitu informatikoen brigadan edo edozein indar eta segurtasun-kidegotan, hori egin behar dela uste bada.

Edonola ere, larritasun bereziko egoera horietan, Hezkuntza Departamentuari jakinarazi beharko zaio, Bizikidetza Zerbitzuaren edo Hezkuntzako Ikuskaritzaren bidez.

Familiei informazioa ematea eta kontzientziatzeko jarduerak egitea familiekin

Bereziki garrantzitsua da —eta aurreko guztia baino lehen egin beharrekoa— ikastetxeek familia guztiei egoera horien berri ematea, eta jakinaraztea legezko zer erantzukizun duten beren seme-alaben eta haien jardunen gainean.

Jarraian, familiendako informazioaren parte izan beharko luketen gomendio batzuk emanen ditugu:

- Eduki desegokiak dituzten profil horietan ez jarraitzea, partekatzea edo iruzkintzea, interakzio bakoitzak irismen handiagoa ematen baitie eduki horiei.
- Pantaila-argazkiak ez birbidaltzea mezularitza-taldeen edo sare sozialen bidez, hedapen handiagoa izan ez dezaten.
- Frogak badaude, gorde egin behar dira data eta profilaren izena jarrita, eta ikastetxeari eman behar zaizkio.
- Zuen seme-alabekin lantzea iristen zaizkien edukien aurrean izan behar duten kontzientzia kritikoa, eta erakustea zer garrantzitsua den kalte horretan ez parte hartzea. Isiltasunak ere hitz egiten du, eta horrelako egoera batean ikusle izateak jarrera bat hartzea dakar.
- Gogoraraztea **meme bakoitzaren atzean benetako pertsona bat dagoela** eta errespetua oinarrizkoa dela hezkuntza-komunitatean giro ona izateko.

Baliabideen eta informazioaren webgunea

Hezkuntza Departamentuak webgune bat jarri du hezkuntza-komunitate osoaren eskura. Bertan eskaintzen dira gomendio horiekin lotutako baliabideak, dokumentazioa, informazioa eta estekak, eta hori dena aldian-aldian eguneratuko da: https://ikasnova.digital/eu/convivencia-curis